

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 21a / 534. zenbakia



GAZTEEN LOKALAK

Gero eta gazte gehiagok hartzen du errentan lokala koadrilarekin egoteko

ERAKUSKETA: GIPUZKOAKO ERREPIDEEN MAKETAK, UDALETXEAN/6 • LOKATZA: AURTEN, HIRU TALDE/10

AZALA: IÑAKI ITURBE

1. euskal selekzioaren ed-rom jokoa



eskatu orain!

902 010 735
Telefona 24 orduz.

+ DOAN



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,
72 orduan
bidaltze
gasturik gabe



35,95
euro

Jokoa orain erosiz gero,
bufanda eta garraioa

DOAN

Imajina dezakezun guztia!



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!




Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gauez, euriarekin...




ATREBENTZIAEZPADA/ Etxian zaintzen dozue uran kontsumua? Zergaittik?



ENARA AIZPURU
33 urte



JOSE MARI IGARTUA
67 urte




ABRAHAM SÁNCHEZ
63 urte



MILA PRIETO
38 urte



AINHOA CARAZO
28 urte



FELIX IÑIGUEZ DE HEREDIA
61 urte

Bai, nik uste dot ez dogula askorik kontsumitzen. Esaterako, ez dogu baiñurik hartzen, dutxak bakarrik. Dana dala, uste dot gehixago dala gugaittik ura zaintziagaittik baiño.

Neuk, behintzat, ez dot kontuan hartzen zenbat ur gatatzen dogun. Etxeko gainarakuak igoal nik baiño gehixago zainduko dabe, baiña nik neuk, egixa esatien, askorik ez.

Baietz uste dot, ahalegintzen garela. Oin, adibidez, ondo gare, ur asko dago, baiña biltegiatxeko uran mailak behera egiten dabean, orduan datoz kontuak. Iaz oso baju egon zien.

Bai, saiatzen gara pixka bat neurtzen kontsumua, baiña ez askorik, pixka bat. Batez be fakturiagaittik zaintzen dogu. Ur faltiagaittik gutxiago, hemen ur nahikua daukagu-eta.

Zaintzen dogu. Dutxa hartzerakuan, harrikua egitterakuan... Gehixenbat fakturiagaittik izaten da, baiña ura zaintzia komeni dalako be bai, nahiz eta gutxiago izan.

Bakarrik bizi naiz, eta zaintzen saiatzen naiz, gauza danetan, nere ustez; baiña gauza batzutan zailla izaten da neurrixa hartzia. Batez be, gastu txikixagua eukitzeko zaintzen dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK ETA EUSKALDUNOK ZER? Debagoieneko Ospitalera deituz gero, telefonoaren beste aldean emakumezko ahotsak erantzuten du, erdaraz. Oraingo txistu honekin, hori da hain zuzen, herriar batek salatu nahi duena: erdaraz erantzun eta euskaraz elkarrizketa minimoena ere eramateko gai ez den pertsona bat jarri izana ibar guztirako zerbitzua eskaintzen duen ospitalearen harreran. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

Gazteak eta lokalak

Lokalak errentan hartu eta koadri-larekin egoteko leku bilakatzen ari dira gazte askorendako.

Pilota jaialdia gaur Bergaran

Korrika 13ren aldeko pilota jaialdia izango da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:00etan.

San Pedroko margolanak

Apostoluen martirioa irudikatzen duten hamabi lan zaharberri dituzte eta ikusgai daude Donostian.

ASTEKODATUA

30

LOKATZAK IZANGO DITUEN TXIRRINDULARIAK

Hasi berri den denboraldian 14 eta 18 urte bitarteko 30 txirrindularik jardungo dute Lokatza Ziklismo Eskolan, hainbat mailatan. Lizentzia kopuruak behera egin du azken urteotan.

BESTEKEESANA

“Literaturaren funtsa eta handitasuna, Kunderak dioen bezala, pertsonaren beldurra, fantasiak,

korapiloak, grinak azaltzean eta aztertzean datza; ez psikologiak, ez soziologiak, ez sexologiak, ez beste ezein diziplinak egin dezakeen gauza, bestalde. Eta esan beharrik ez literatura erotikoa beste edozein genero bezain zaila edo zailagoa dela idazteko. Bideo pornoen aroan, ez dago gauza aspergarriagorik txortaldiak behin eta berriz hitz berdintsekin eta eszena berdintsekin errepikatzen dituzten nobelak baino. Ezustea, umorea, giroaren prestaketa, klimaxa eta beste mila baliabide aipa daitezke, ezein obra literariotan bezala, mila modukoak izan daitezke-eta testu erotikoak, mila modutakoak diren bezala gizon-emakumeen fantasiak eta irrikak. JUAN MARTIN ELEXPURU / Idazlea 'Argia'/03-03-16

BERAIEKDIÑO/ Ainhoa Agirreazaldegia



Ireki begiak, mesedez

Zur eta lur geratu da -geratu gara- milaka euskaldun *Egunkaria*-ren aferarekin. Zeru eta lur, oro mugiarazi ditu, milaka euskaldunen salaketak. Bihotzez sentitu nuen injustizia hau, behin baino gehiagotan negargura sentitu ere bai. Gogoeta asko iragan ziren nire baitan, baina gaur, horietako bati heldu nahi nioke.

“Balioko ahal du, zapalkuntza berri honek, hainbat euskaldunen begiak irekitzeko”, pentsatu nuen, beste gauza askoren artean. Ez da itxi diguten lehen egunkaria. Itxi ziguten aurretik beste bat, bai eta irrati bat ere. Ez dira gertatu diren lehen torturak. Ehunka lagunek egin dute salaketa bera -eta hainbatetan askozaz gogorrakoak-, hainbat polizia-er eskutatik jasotako torturengatik. Ez da Pello gaixotasun larria duen lehen preso. Salatu da lehenagotik presoen dispertsioa -hainbat senidek larrutik ordaindu

duena-, Euskal Herrian egoteko eskubidea, hiru laurdenak... Salatu dira partidu politiko baten espioitza, ilegalizazioa eta kartzelaratzea. Eta hainbat eta hainbat injustizia gehiago, lerrootan kabitzen ez direnak, kontaezinak direlako. Azkenak,

“Balioko ahal du, zapalkuntza berri honek, hainbat euskaldunen begiak irekitzeko, pentsatu nuen”

modu harrigarri txundigarrian, hainbat preso Manzanarenen enpadronatu izana, edo oraindik jaiogabe, hiltzera kondenatu duten proposamen elektroal berria.

Non egon dira hainbat komunikabide, politiko eta herritar? Zer gehiago behar dugu, geure buruaren jabe izan ezean, minutuka kolpatuko gaituztela ulertzeko? Zinez sinesten dut herri honek eman duen erantzunari esker ari direla ateratzen poliki-poliki *Euskaldunon Egunkaria*-ko presoak. Pentsatu nahi dut irekitzen ari diren hainbat begik orain arte isilik egon diren hainbat aho ere irekiko dituztela.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 22**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 23**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 24**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 25**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 26**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 27**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (banda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Anglozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEk. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegaraieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00. |
| 19:00. | Angiozar |
| Sierbak | Domekak: 11:30. |
| Lanegunak: 19:15. | Moja Zaharrak |
| Zapatuak: | Lanegunak: 09:00. |
| 19:00. | Zapatuak: 11:00. |
| Domekak: | Mizpirualde |
| 11:30, 13:00. | Lanegunak: 11:45. |
| Osintxu | Zapatuak: 17:30. |
| Domekak: 12:30. | Antzuola |
| Zapatuak: 19:00. | Domekak: |
| Elosu | 09:00, 11:30. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Eloregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOZKETA
Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendua ordaintzen laguntzeko, haren familiak eta lagunek hiru saski zozketatuko dituzte. Txartelak herriko tabernetan daude salgai. Era berean, hiru akontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan, Caja Rural de Navarran eta Banco Guipuzcoanon.

TXILEKO EMAKUME BASERRITARRAK
Komite Internazionalistak eta EHNEk antolatuta, Txileko Anamuri emakume baserritarren elkarteko kideen hitzaldia izango da eguaztenean, hilaren 26an, kultur etxean, 19:30ean.

1975EAN JAIOTAKOAK
1975ean jaiotako bazkaria apirilaren 12an. Izenematea (20 euro), Kutxan, San Martin plazako bulegoan.

LANGILEENDAKO IKASTAROAN MIGUEL ALTUNAN
Miguel Altuna institutuak langileei zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu: batetik barneratze bidezko elektro-higadura ikastaroa eta bestetik horizko elektro-higadura ikastaroa. Biak 40 orduko ikastaroak dira. Argibideak, 943 76 38 40 telefono zenbakian.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Txapligu taldean diharduten gaztetxoek eskulan ikastaroa izango dute bihar, zapatua, Arrizurin, 16:00etan. Eta domekan, ordu eta toki berean, jolasak izango dira. Txiskri-labi taldekoek, berriz, eskulanak izango dituzte bihar, zapatua, Udal Euskaltegian, 16:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarretetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Etxaniz eta Zezeaga, binakako txapelak

Etxanizek eta Zezeagak osatutako bikoteak enpresa tradizionalen antolatutako Eskuz Binakako Txapelketa irabazi zuten. Bergararrek 22-15 irabazi zieten Urionaguenari eta Galartzari, pilotalekuan, martxoaren 21ean. Egon zen beste txapelketa Alustizak eta Maizek irabazi zuten.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Anporra"

Pertsona gizen eta baldarrari esaten zaio. —Aspaldixan ikusi barik neukan Pedro, eta, aura dago anporra, aura.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 18	-2 °C
MAXIMOA Eguaztena, 12	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0 l

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	24 °C	10 °C	— (l/m²)
Eguena, 13	21 °C	4 °C	— (l/m²)
Egubakoitza, 14	19 °C	6 °C	— (l/m²)
Zapatua, 15	20 °C	8 °C	— (l/m²)
Domeka, 16	16 °C	6 °C	— (l/m²)
Astelehena, 17	19 °C	0 °C	— (l/m²)
Martitzena, 18	20 °C	-2 °C	— (l/m²)

San Juan auzoan jasotako datuak


ASTEKO FILMAK

'OCHO MILLAS'
ZUZENDARIA: CURTIS HANSON. AKTOREAK: EMINEM, KIM BASINGER, BRITTANY MURPHY.

HARIA. Eminem rap kantariaren gaineko filma. Detroiten hazi zen Eminem, afroamerikarrak nagusi diren auzo baten, eta familian hainbat arazo izan ditu.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



'AMEN'
ZUZENDARIA: COSTA-GAVRAS. AKTOREAK: MATHIEU KASSOVITZ, ULRICH TUKUR.

HARIA. Costa-Gavras zuzendutako ospetsuaren (*Desaparecido*, *La caja de música*) azken filmak puztuta mika piztu du elizako agintariek artean. SSKo ofizial bat eta jesuita gazte bat bizitza arriskuan jartzeko gertu daude, naziek juduak egiten diharduten geroz, dioa eragozteko. Inork ez du kasurik egingo, ordea....

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean (martxoaren 27), 20:00etan. Zineklubak.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

GAZTERIA/ Horrelako lokalen kopuru zehatzik ez dago; galdetutako koadrilen esanetan hamabost bat daude, gehienak herri erdialdean

Gero eta herriko gazte gehiagok alokatzen dute lokala koadrilarekin egoteko

MONIKA BELASTEGI

Azkeneko hiruzpalau urteotan hedatuz doa gazteen artean lokala errentan hartu eta hura koadrilaren gotorleku bihurtzeko ohitura. Koadrilaka hartzen dituzte lokalok, eta halako lautan egon gara lokalean zer egiten duten ikusi eta zergatik alokatu duten jakiteko.

16 urtetik hasi eta 22 urtera bitarteko neska-mutikoak dira, batez ere, joera berri horri ekin diotenak. Horrelako zenbat lokal

dagoen zaila da esaten; galdetutako gazteek hamabost bat daudela esan dute. Gehienak erdialdean daude; horixe da, behintzat, gehienen nahia, herri erdialdean lortzea lokala. Baina periferiako kaleetan ere badira hainbat.

Lokalok koadrilaka hartzen dituzte gazteek, etxebizitzaren baxuetan daude bereziki, eta kasu gehienetan zuzenean nagusiarekin egiten dute lokala errentan hartzeko tratua. Dena dela, badira etxe agentzia batera jo eta han alokatu dutenak ere.

Prezioari dagokionez, 180 eta 365 euro bitartean ordaintzen dituzte hileko, eta normalean hutsik egoten dira errentan hartzerakoan. Hala, lokala janzteko etxean dituzten aulki, mahai, besaulki... zaharrak erabiltzen dituzte, baita zaborretik hartutako trasteak ere. Horrez gain, ia guztiak dute irrati-kasetea, musika ekipoa, telebista eta berogailua, eta batzuek bideoa, kontsola eta hozkailua ere izaten dute.

Galdetutako gazteen esanetan, aste barruan eta asteburuetan erabiltzen dute lokala: aste

barruan arratsalde, bereziki, eskolatik irten eta gero, eta asteburuetan gauz ere egoten dira.

“Egoteko lekua” bezala definitzen dute lokala: telebista ikusi, musika entzun, berba egin, partxisean egin... Horixe da bereziki egiten dutena. “Bilgunea” dela ere esan dute, koadrilakoekin batu eta lasai egoteko tokia.

ZERGATIK JOERA BERRI HORI?

Horrelako lokalak errentan hartzeko arrazoiak, bi dira nagusiki: 18 urte bitartera arteko gazteen esanetan, euren adineko giro-

rik ez dago Bergaran, beste herri batzuetara joaten direlako, Arrasatera, Eibarrera eta Elgoibarrera, batik bat. Tabernaz taberna ibiltzea ere ez dute oso gustuko: “Eta parkean edo plazan egoteko hotz egiten duenez, lokala hartu genuen”.

Nagusiagoek, aldiz, ez dute uste kalean giro falta denik lokala errentan hartzeko arrazoiak: “Gu lokalean, bereziki, astean barrena egoten gara. Asteburuan kalean ibiltzen gara, tabernetan, gainerakoan moduan. Lagunekin lasai egoteko toki bat da”.



SAN PEDRO KALEAN

Orain dela urte eta erdi inguru alokatu zuten lokal hori. 16-17 urte bitarteko bederatzi neska dira, guztiak koadrilakoak. Euren kasa aurkitu zuten lokala: “Agentzietan izan ginen, baina ez ziguten lokalik errentan eman nahi izan”. 217 euro ordaintzen dituzte hileko, 25 euro inguru bakoitzak, eta hutsik zegoenez, eurek jantzi dute, “etxetik ekarritako aulkiekin eta besaulkiekin eta zaborretik hartutako gauzekin”. Gustura daude: “Tabernetan ez bada, gazteok ez daukagu non egon; neguan, esaterako, non egongo gara? Parkean hotza pasatzen? Hemen gustura egoten gara musika entzuten eta berbetan”.



ARRURIAGA KALEAN

Orain dela hiru hilabete hartu zuten errentan lokala. 18 urteko hamabost neska-mutikok erabiltzen dute: “Gure adineko girorik ez dago herrian. Gehienak kanpora joaten dira. Eta gauz atereaz gero, tabernetan baino hobeto gaude hemen. Merkeagoa da, gainera”. Etxe agentzia baten bidez aurkitu zuten lokala. 240 euro ordaintzen dituzte hileko; bakoitzak 20 euro jartzen ditu, eta “sobran dagoenarekin argia ordaindu eta litxarkeriak erosten ditugu, besteak beste”. Musika entzun, telebista ikusi eta lasai egon, horixe egiten dute. Bestalde, ondo antolatuta daudela diote; garbitzeko txandak egiten dituzte.



KRUZ GALLASTEGI KALEAN

Uztaila ezker du 31ko mutil koadrila horrek lokala. 20 eta 23 urte bitarteko mutilak dira, eta euren kasa aurkitu zuten. 365 euro inguru ordaintzen dituzte hileko, eta 35 ur eta argi zerbitzuengatik. Bakoitzak 12 euro jartzen ditu hileko. Telebista, bideoa, irrati-kasetea, berogailua, komuna... Denetik dute. Bestalde, freskagarri eta litxarrerria despentsa dute: “Koadrila elkartu eta lasai egoteko gunea da, eta berriketan, kartetan eta partxisean egiten dugu, esaterako; baita telebista ikusi eta musika entzun ere”. Astean ematen dute denbora luzeen lokalean: “Asteburuan nahiago izaten dugu kalean ibili”.



ZUBIETA KALEAN

Lokal hori ere koadrila oso batek hartu zuen errentan irailean. 17 eta 18 urte bitarteko 28 mutiko dira. Euren kontura aurkitu zuten lokala, eta 300 euro inguru ordaintzen dituzte; bakoitzak 10 inguru. Astean arratsalde egoten dira, batez ere, eta asteburuetan gauz ere bai batzuetan; izan ere, kalean ibiltzea ere gustuko dute, “nahiz eta giro handirik ez dagoen, jendea inguruko herritara joaten da-eta”. Lokalean telebista, bideoa, hozkailua eta musika ekipoa dituzte, eta bereziki “bilgunea da, koadrilakoekin lasai egoteko lekua. Lehen Santa Anan egoten ginen, baina batzuetan hotz handia egiten du”.

ERREPIDEAK/ Gipuzkoako errepideen gaineko hamalau proiektu garrantzitsuenen maketak egongo dira ikusgai

'Gipuzkoa, XXI. menderako bideak' maketa erakusketa Udalean asteleheneretik aurrera

MONIKA BELASTEGI

Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakusketa da eta azken urteotako Gipuzkoako errepide sarearen gaineko hamalau proiektutan oinarritzen da. Astelehenera zabalduko dute erakusketa eta apirilaren 6ra arte egongo da ikusgai, osoko bilkuren aretoan.

Erakusketa horren bitartez Errepide Departamentuak azken urteotan azpiegituren eredu eramangarria eraikitzeke egin duen lana erakustea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Aldundiko iturrien esanetan, Errepide Departamentuak mugikortasun iraunkorra diseinatzearen eta kudeatzearen alde egin du, lurraldearen eta herritarren garapen ekonomiko eta soziala lortzeko, horretarako kanpoko nahiz barruko komunikabideen kalitatea eta bide segurtasuna hobetuz.

Hamalau maketak osatzen dute erakusketa. Bakoitza errepide bati dagokio, eta lagungarri gisa azalpen panelak egongo dira.



Eibar-Gasteiz autobidearen gaineko maketa egongo da ikusgai, besteak beste, Aldundiaren erakusketan.

ARTXIBOA

PROIEKTUETAKO BI, BERGARAN

Maketetako bi Bergararekin lotuta daude: Eibar-Gasteiz autobidea eta ekialdeko saihebidia.

Lehenengoak 46,2 kilometroko luzera izango du; horietatik 31,9 Gipuzkoari dagozkio eta gainerako 14,3ak, Arabari. Gaur egun Bergara eta Eibar arteko zatia eta Epele eta Bergara artekoa dihardute eraikitzen, bergararrok ondo dakigun moduan. Bergara eta Eibar arteko zatia udaberrirako zabaltzekoak ziren, baina Soraluzen egiten diharduten Larreategiko zubibidea dela-eta atzeratu egingo da, seguruenik.

*Gipuzkoa barruko
14 errepideren
maketak daude
ikusgai
erakusketan*

Esandako bi zatietako lanen aurrekontua 324 milioi eurokoa da, eta Foru Aldundia egin da kopuru handienaren kargu.

Ordainsaria, bestalde 0,08 eurokoa izango da kilometroko ibilgailu arinendako eta bakoitza kamioiendako.

*Ekialdeko
saihebidaren eta
Eibar-Gasteiz
autobidearen
maketak daude*

Ekialdeko saihebidia iaz inauguratu zuten, eta herri barrutik 8.000 ibilgailu inguru ibiltzea ekiditen du. Gainera, Eibar-Gasteiz autobidearekin lotuko da eta Beasain-Durango ardatzaren zatia da. 2,1 kilometroko luzera du eta 1,2 kilometro gehitu behar

*Asteleheneretik
apirilaren 6ra arte
egongo da ikusgai
osoko bilkuren
aretoan*

zaizkio adarretan. 16 milioi euroko aurrekontua izan du.

Erakusketan proiektu hauen maketak ere ikus daitezke, besteak beste: Etxegarateko zabalpena, Urumeako autobidea, Hernaniko saihebidia, Ormaiztegi-Zumarraga autobidea.

Madrazok San Antonioko etxe berriak inauguratu ditu

E.M.

Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua Bergaran izan zen astelehenera, San Antonioko babestutako etxeak inauguratzen. Etxebizitza horien zozketa 2002ko martxoan egin zen, eta hainbat arazo tarteko, lanak nahi baino gehiago luzatu dira. Etxebizitzak alokairuan hartu dituztenek ere astelehenera arte itxaron behar izan zuten etxebizitzak ikusteko. Jabeek euren kezka azaldu zitoten aurreko asteotan alkateari lanen atzeratzeagatik. Promoziozko 18 etxe-

bizitza dira astelehenera banatutakoak.

Astelehenera aurkezpenean Madrazok zera adierazi zuen: "Gaur egun horrelako etxebizitzak kalitatezkoak dira, lehengo mitoa apurtu egin da eta beste-lako etxebizitzak erosteko aukera ez dutenek etxebizitza on batzuk prezio onean eskuratzeko aukera daukate. Euskal Autonomia Erkidegoan babestutako etxebizitzak portzentajea %25ekoa da eta Estatuan, berriz, egiten diren 100 etxebizitza bakoitzeko bederatzi bakarrik dira babestutakoak. Horrek erakusten du gurean

zer-nolako sentsibilizazioa dagoen etxebizitzaren gaiarekin".

Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea ere pozik agertu zen San Antonioko etxebizitzak eraiki direlako, eta, era berean, aurrerantzean ere horrelako promozio gehiago izango direla aurreratu zuen.

78-89 METRO BITARTEKOAK

Astelehenera inauguratutako 18 etxebizitzak hiru solairutan banatuta daude eta, era berean, sotoan 16 autorentako garajea dago. Etxebizitzek 78 m² eta 89 m²-ko azalera daukate.



Javier Madrazo eta Victoriano Gallastegi astelehenera inaugurazioan.

LABUR

Bideberriko rock kontzertuetan parte hartzeko deia

Pazkoetako rock kontzertuetan emanaldia egin nahi duten herriko taldeek kultura etxean eman behar dute izena martxoaren 29a baino lehen. Antolaketa batzordeak erabakiko du izena eman dutenetatik zeinek hartuko duen parte.

Ezindu psikikoen familiakoendako heziketa ikastaroak

Eskualdeko Laguntza Taldeak ezindu psikikoen familiakoendako eta lagunendako heziketa ikastaroak antolatu dituzte Udalarekin, Aguiñesekin eta Diputazioarekin lanean kideztan. Ikastaroak kultura etxean izango dira, apirilaren 2tik 30era, eguaztenero, 11:00etatik 12:30era. Izena Udaleko Ongizate Zerbitzuan eman behar da (Ines). Informazio zabalagoa: 943 77 91 66.

Egunkariaren aldeko materiala salgai, zapatuan

Egunkariaren aldeko herri batzordeak mahaia jarriko du San Martin plazan, 11:30etik 13:30era bitartean. Metxerak, pegatinak, kamisetak... egongo dira salgai. Bestetik, kultura elkarte, kirol talde eta elkarte gastronomikoen bildu da astean herri batzordea, bakoitzari dagokion taldean *Egunkariaren* harpidetza kanpaina bultzatzetarako. Herri batzordean parte hartu nahi duenak 943 760518 zenbakira dei dezake edo *herri.batzorde@yahoo.fr* helbidera idatzi.

ELKARRIZKETA

MIGUEL ANDUEZA/AITA DOMINGOTARRA EL SALVADORREN

“Besoetakotzen den ume bakoitzak bitaminak eta esnea ditu, behintzat”

MONIKA BELASTEGI

Miguel Andueza bergarra herrian dago egunotan. El Salvadorren egiten du lan, eta Adic gobernuz kanpoko erakundeak abian jarri nahi duen proiektu berria inguruko udaletan aurkeztera etorri da.

Zein da bisitaren arrazoia?

Urtero moduan, proiektuak ekartzera etorri naiz, udaletan aurkeztu eta laguntzak lortzeko asmoz.

Proiektu berria da ala etxebizitzaren proiektuarekin jarraitzen duzue?

1998an Mitch urakana gertatu zen eta 2001ean bi lurrikara. Hori dela eta, Adic erakundearen etxebizitzaren eraikuntzan jardun dugu, batez ere. Eta oraindik ere beste bi urtez zeregin horretan jardungo dugu. Tacuba eta Isalco herrietan oinarritu gara, eta 1.200 etxe inguru eraiki ditugu. Gehienak, dena dela, Tacuban egin ditugu, 5.000 etxebizitza erori ziren-eta.


Dena dela, orain udaletan aurkezten dihardugun proiektua berria da eta hiru oinarri ditu: komunitate oso baten -105 familia dira- argindarra sartu nahi dugu; bestetik, oinarritzko alea ereiteko laguntza eman nahi diegu; eta, horrez gain, komunitate osoko pertsona nagusiak alfabetatzeko programa bat jarri nahi dugu abian, hango irakasleekin. Horrez gainera, ume guztiak eskolara bidal ditzaten motibatuko ditugu gurasoak.

Hori guztia Gipuzkoako 14 udaletan aurkeztuko dugu, Bergaran barne, eta Oscar Romero batzordea arduratuko da dirubatzeez, orain arte bezala. **Desnutrizioaren gaia ere lantzen diharduzue.**

Kafea izan da urtetan herri-askoren bizimodua. Nazioarteko merkatuan asko jaitsi da kafearen prezioa. Hori horrela, kafe-sailetako nagusiek, kasu askotan, batu ere ez dute egiten kafea, eta kafea jasotzen ez dutenez, bada, lan hori egiten zutenak langabezia daude.

Tacuban mila familia inguru kafe-sailen barruan bizi dira, hortik ateratzen zuten bizitza. Orain lan barik geratu dira eta, gainera, ez dute lurrik ereiteko. Horren ondorioz, desnutrizio egoera oso larrian daude horietako asko.

Kafearen prezioak behera egin du, eta El Salvadorren dibisa sarrera nagusietako bat zen. Orain zelan egin aurre horri? Zaila da, eta ez dut uste gobernua ere berehalako irtenbidea eman ahalko dionik. Bien bitartean, oinarritzko aleak ereiteko lagun-



MONIKA BELASTEGI

“Kafearen prezioak nazioartean izandako jaitsiera da desnutrizioaren eragile”

tzaz gain, beste laguntza bide bat ere jorratzen dihardugu Adic-en: etxeko ekonomiari laguntzeko familiendako ortu txikiak. Baina hori ere zaila da, familia askok oso ortu txikia dutelako. Horregatik, ortu hidroponikoetan pentsatzen ari gara.

Zenbat lagunengan eragin du desnutrizioak?

Tacuban 50.000 biztanle daude eta erdiak du lotura kafearen ekoizpenarekin. Dena dela, desnutrizio datuak ematea zaila da, ezkutatzea komeni den gaia delako. Bost hilabeteen 50 ume hil direla badakigu, baina hori filtrazio baten ondorioz jakin izan da.

Umeak besoetakotzeko kanpaina ere baduzue.

Bai, eta helburua da besoetakotzen den ume bakoitzari bita-

“Bergaran hogeitau inguru besoetakotu dituzte eta inguruko herrietan ere bai”

minak eta esnea bermatzea, gutxienez. Hortik aurrera, umea besoetan hartu duen pertsonak laguntza handiagoa eman nahi badio, egin dezake.

Bergaran 20 ume inguru besoetakotu dituzte. 350 euro inguru ko kostua du urtean, eta Oscar Romero Solidaritza batzordearekin jarri behar da harremanetan horretarako. Umea besoetakotzean, haren argakia bidaltzen dizute, umea ezagutzeko, eta tartearen ekoizpenaren gaineko informazioa ere bai.

Laguntzeko modu ona da?

Asistentzialista da, baina modu bat da. Zuk pentsa laguntzak lortzeko proiektua prestatu, erakundeetan aurkeztu eta erantzunak jaso orduko zenbat denbora pasa daitekeen. Eta bitartean, zenbat ume hil daitezke?

Udalak igerilekua astelehenean zabaltzeko asmoa dauka

MONIKA BELASTEGI

Udaleko Kirol Zerbitzuen esanetan, astelehenean zabalduko dute igerileku estali berria, seguruena. Ohiko ordutegia izango du, baina lehengoaren aldean domeka arratsaldetan ere zabalik egongo da.

Guztia gertu dago kanpoko igerileku estalia erabiltzaileei zabaltzeko. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak gasaren erabilerean gainean eman beharreko baimen bat besterik ez da falta. Astelehenerako eskuratuz gero, astelehenean bertan irekiko dutela eman du aditzera Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradun Iñaki Ugarteburuk.

Ordutegiari dagokionez, aste osoan egongo da zabalik: astelehenetik egubakoitzera, 07:00etatik 21:00etara, eta zapatu eta domeketan, 09:00etatik 19:00etara. Zerbitzu berriak eskainiko duen

berritasunetako bat, gainera, horixe da, domeka arratsalde zabalik egongo dela. Lehen itxita egoten ziren igerilekuak arratsalde.

IGERILEKURAKO SARRERA BERRIA, IPINTZA INSTITUTUTIK

Ordutegiaz gain, beste aldaketa bat sarrera izango da. Ipintza Institutuko patiotik sartu beharko da igerilekura. Sarreraren ondoren aldagelak daude, eta aldagelak zuzenean ematen dute igerilekura. Aldagelak bi dira, bata gizonezkoendako eta bestea emakumezkoendako, eta horrekin batera bi komun eta botikina ere jarri dute. Igerilekuak, bestalde, 25x10 metroko azalera dauka eta 0,80 eta 1,20 metro bitarteko sakonera.

Udako denboraldiari begira, estalkiaren paretak jaso egingo dituzte eta gaineko txapela bere horretan lagako dutela aurreratu dute.

LABUR

Batzar orokorra egingo du Bedelkar dendarien elkarteak astelehenean

Bergarako dendarien elkarteak urteroko batzar orokorra egingo du astelehenean, martxoak 24, 20:30ean, kultura etxean.

Besteak beste, urtearen balantzea egingo dute Bedelkar elkarteko bazkideek, proposamen berriak egingo dituzte eta Zuzendaritza berri egingo dute.


Zuzendaritza aldatzearekin batera presidentea ere aldatuko dute. Azken bi urteotan Ana Iztueta izan da dendarien elkarteko presidentea, eta datorren astean jakingo dugu haren ordezkoa zein izango den.



Udal Pilotalekuko fatxada konpontzean

Ibargarai kalera ematen duen Udal Pilotalekuko fatxada konpontzean da Udala. Egunotan hesituta dago espaloia, oinezkorik ez pasatzeko. Izan ere, fatxadako bistako adreilua txar-to dago eta hori eusteko beharra ikusi dute.

Hala, bistako adreilua eusteko lanak igeltserotza enpresa bati esleitu dizkiote, 3.828 eurotan.




PETER ROBERTS IKASLEEKIN

Aranzadi Ikastolako Kultura Astearen barruan, Peter Roberts mimo ezagunaren emanaldia izan zen egubakoitzean Seminarioko *arkupetetan*. Robertsek txundituta utzi zituen ikasleak istorioak kontatzeko duen modu bereziarekin. Eguaztenetik egubakoitzera bitartean hitzaldiak, ikastaroak, antzezlanak edo bazkaria izan zuten Aranzadi Ikastolako ikasleek.



TXAPLIGU TALDEKO ARGAZKILARIAK

Neska-mutiko koadrila hau Jarduq Euskara Elkarteak aste bukaeran Arrizurin antolatzen dituen ekintzetan parte hartzen dabil eta oso gustura dihardutela esatera etorri ziren aurreko astean BERRIGARAKO erredakziora. Zapatu eta domeka arratsaldeetan hainbat jarduera egiteko aukera izaten dute eta lagunartean primeran pasatzen dute. Besteak beste, Argazki ikastaroa egin dute Txapligu taldekoek eta goiko argazkia ikusita, zerbait ikasi dute, eurek ateratakoa da-eta. Oraingo asteburuan, zapatuan eskulanak egiten ibiliko dira eta domekan jolasak izango dituzte Arrizuri kanpoan.



SANTA MARINAKO ZUBIA, LANENGATIK ITXITA

Oraingo astean hainbat aldiz itxi dute Santa Marinako zubia, elizan egiten diharduten berritze lanengatik. Restauraciones Siglo XXI enpresak nahiko arriskutsuak diren produktu batzuk erabili izan ditu elizako paretan aplikatzeko eta hori dela eta astelehenean zubia itxi zuten, istripuren bat saihesteko. Era berean, beste hainbat bider ere itxi izan dute. Bien bitartean udaleko langileek zubia konpontzeko lanekin jarraitzen dute.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

MINGAINARITIRAKA



Nerea
Azkarate

TXARRANTXA JATETXEKOA

Nereak 25 urte ditu eta Ostalaritza ikasketak egin zituen Oñatin. Azken hiru urteotan familiak duen Txarrantxa jatetxean dihardu, sukaldari eta zerbitzari lanetan. Eguneroko horoskopa irakurtzen duela esan digu. Piscis zeinukoa da.

Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Dantzari. Beti gustatu izan zait dantza egitea.

Laneko gauzarik onena eta txarrena?

Onena, jendearekin tratua; txarrena, berriz, ordutegia.

Zure lanerako ezinbesteko ezaugarria?

Pazientzia eta umorea.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin irtetea eta kirola egitea. Aerobika egiten dut eta mendian ibiltzea gustatzen zait.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Egunerokoa bizi izateari, ahalik eta modu onenean. Gauza txikiak baloratzen ahalegintzen naiz.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Lagun ona izatea.

Mutil bati zer erreparatzen diozu lehenbizi?

Izaerari eta begiei. Begiek dena esaten dute batzuetan.

Parrandazalea zara? Parrandarako toki bat?

Tamainakoa naiz. Konpainiaren arabera edozein toki da ona.

Puntuatu Bergarako giroa.

Zerotik hamarrera, sei.

Udaberriko gauzarik onena?

Udaberriko koloreak eta bizitasuna gustuko ditut.

Gustuko jantzi bat? Kolore bat?

Praka bakeroak; eta kolorea, gorria.

Janaririk eta edaririk gustukoenak?

Pasta-entsalada; eta edateko, ura eta ardoa.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?

El hombre que susurraba al oído de los caballos (N. Evans)/*Lucía y el sexo*/Bi talde esango dizkizut: Gatibu eta Extremoduro.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Indiara.

Eta uharte batera zein hiru gauza eramango zenituzke?

Eguzkitako krema, lagun on bat eta txalupa, bueltatzeko.

Amets bat?

Esaten badut igual ez da beteko...

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Amaia Garitano

FINLANDIA / 2000ko urrian

Erasmus plangintzako beka bati esker joan nintzen Finlandiara 2000ko urrian, eta ia urtebete eman nuen han, uztaiera arte, hain zuzen. Helsinki hiriburutik 400 bat kilometrotara dagoen Jyväskylä izeneko hirian egon nintzen. 60.000 biztanle inguruko hiria da eta Europa osoko ikasle asko dago han, hainbat unibertsitate daude eta. Oso hiri lasaia da, Finlandiako hiri gehienak moduan. Hirietatik oso gertu baso ederrak daude Finlandian, eta pinuak eta urkiak dira nagusi. Oso herrialde laua da Finlandia, eta kontraste gutxiko paisaia da hangoa. Mendebalean badago mendi kate bat, baina bestela paisaia nahiko monotonoa da. Hori bai, lakuz beterik dago Finlandia osoa.

Bizi nintzen hiritik Helsinki sarritan joaten nintzen, Bergarako lagun bat han bizi zelako eta etortzen ziren bisitak hara heltzen zirelako lehenbizi. Turku Finlandiako lehengo hiriburua asko gustatu zitzaidan, baina Helsinki modernoa bai baina hiri inpersonala irudi zitzaidan. Hala ere, badu bere xarma hainbat tokitan eta tranbiak, esaterako, ukitu berezia ematen dio Helsinki. Turku, berriz, mendebalean dago, uharte asko ditu inguruan. Oso polita da. Han alde batetik bestera ibiltzeko nagusiki tre-




“Oso herrialde laua da Finlandia, eta kontraste gutxiko paisaia da hangoa”

“Rovaniemin, Laponiako hiriburuan, dago Zirkulu Polar Artiko famatua”

na erabiltzen genuen. Trena garestia da, baina ikasleoi deskontu onak egiten zizkiguten. Bestalde, Rovaniemira autoan joan ginen. Rovaniemi iparraldean dago eta Laponiako hiriburua da. Bi aldiz joan nintzen hara, Gabonetan eta Aste Santuan. Gabonetan ez du merezi, egunean bi orduz bakarrik dago eta eguzkiko argia. Elurra egiten du eguneroko Gabonetan, nekagarri egiten da azkeneko. Rovaniemin dago Zirkulu Polar Artiko famatua. Aste Santuan, esaterako, 06:00etatik 21:00etara zegoen eguzkiko argia. Benetan ederra da sentazio hori.

EDU MENDIBIL

Baina ohizkoenak egun grisak dira han, eta negua luze egiten da. Uda ere urtaro luzea da Finlandian. Nire iritziz, Finlandiara joateko sasoirik onena maiatza da, udan eltxo gehiegi dago eta. Finlandiarrak, berriz, giroaren oso antzekoak dira, nahiko hotzak orokorrean. Jendearen lasaitasuna eta isiltasuna errespetatzeko ohitura handia dago hantxe. Kaleetan



Jyväskylä inguruan dagoen laku baten Amaia Garitanok egindako argazkia.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



CRISTINA
Mutil eta neska

LEVI'S LOIS BIG-STAR

Arruriaga z/g (Burdinate parean) 943 76 03 04

TXIRRINDULARITZA

Lokatza Ziklismo Eskolak hiru talde izango ditu hasi berri den denboraldian

Infantil, kadete eta gazte mailetakoko taldeetan 30 txirrindularik jardungo dute. Lizentzia kopuruak behera egin du azken urteotan

EDU MENDIBIL

Lokatza Ziklismo Eskolako taldeek denboraldi berriari ekin diote dagoeneko. 14 eta 18 urte bitarteko 30 txirrindularik jardungo dute hainbat mailatan. Betiko moduan, txirrindularitzarako zaletasuna bultzatzea da Lokatzakoen helburu nagusietako bat.

Infantil, kadete eta gazte mailetakoko taldeak izango ditu Lokatzak. Lagun gehien infantil mailakoan ibiliko dira: 17 txirrindulari, hain zuzen. Eskumako argazkian Ander Mengual, Unai Markiegi, Igor Molano, Eneko Maguregi, Mikel Amorós, Julen Iñurrieta eta Markel Arenaza falta dira. Mikel Larrañaga Lokatzako presidentearen hitzetan, "Indurainik ez daukagu, eta gure helburua txirrindularitzarako zaletasuna sus-


tatzea eta neska-mutikoak gustura ibiltzea da, besterik ez. Hortik aurrera, euren bizitzarako probetxuzko gauzak ikasten badituzte, primeran. Txirrindularitza krisian dagoen? Azken urteotan lizentzia kopuruak behera egin du: batetik, ume gutxiago dagoelako gaur egun eta bestetik, txirrindularitzaren arriskuagatik. Edozelan ere, pozik gaude osatutako taldeekin eta gaztetxoak ere oso ilusionatuta daude denboraldi berrirako".

EUSKADIKO ITZULIKO IRTEERA 2004AN


Lokatzak antolatuta, Gorka Igoera izango da martxoaren 30ean. Hemendik aurrera martxo azken domekan jokatu da. Bestalde, 2004ko Euskadiko Itzuliko irteera Bergaran izango da, apirilaren 5ean. Hala, lehenbiziko etapa Bergaran hasi eta Bergaran bertan bukatuko da.



Infantil mailako taldea. Atzean, ezkerretik eskumara, Ekaitz Horrillo, Teresa Ibáñez, Urko Sánchez, Gorka Artola, Markel Arraigo, Jon Gantxegi eta Iker Sánchez zuzendaria. Aurrean, Ander Iturriagoitia, Maikel Sagasta, Eneko Odriozola eta Xabier Agirre.



Unai Arantzabal eta Kepa Varela gazte mailan lehiatuko dira. Biokin, Sánchez eta Plazaola zuzendariak.



Joseba Muguruza eta Asier Penabad kadeteak Xabier Plazaola zuzendariarekin.

Athleticeko lagunartean eguna apirilaren 5ean

E.M.

Athleticeko lagunartean eguna ospatuko dute Bilboko Erakustazokan datorren apirilaren 5ean. Hori dela eta, Peña Athletic Bergara taldeak hara joateko bidaia antolatu du. Autobus txartela doanekoa izango da. Bazkari txartelak, berriz, 18 eurotan (nagusiendako) eta 11 eurotan (gazte-txoendako) eskura daitezke. Interesatuek Toki-Ona ardandegian eman dezakete izena martxoaren 28a baino lehen. Edozein argibidetakoa, 607 225 726 (Fermin) telefonora deitzeko aukera duzue.

Aurten bigarren aldiz ospatuko dute lagunartean eguna.

Egun osoan barrena egitarau zabala izango dute Athleticzaleek. Eta Athleticen eta Atletico Madrilek aste bukaera horretan San Mamesen jokatu beharreko partidua zaptura aurreratzen badute, partidura joango dira Peña Athletic Bergarako kideak.

100 BAZKIDE INGURU

Peña Athletic Bergara 1999an sortu zen eta herriko kirol lagunartek jendetsuena da. Gaur egun 100 bazkide inguru ditu. Aurten denboraldian irteera bakarra egin dute, Athleticen eta Celtak jokatu zuten partidua ikustera, hain zuzen ere. Juan Mari Aspiazu Txistu da taldeko presidentea.



Peña Athletic Bergara 1999an sortu zen eta gaur egun 100 bazkide inguru ditu.



ARGAZKI PRESS

Titin III.a izango da gaurko pilota jaialdiko protagonista nagusietako bat.

PILOTA

Korrikaren aldeko pilota jaialdia, gaur gauean, Udal Pilotalekuan

Sarrerak 20 eurotan eta 10 eurotan jarriko dituzte salgai frontoiko leihatilan

EDU MENDIBIL

Gaur, egubakoitza, Korrikaren aldeko pilota jaialdia izango da Udal Pilotalekuan, 22:00etan. Pilotazaleek Titin III.a-Apeztegia eta Xala-Lasa bikoteen arteko partidua ikusteko aukera izango dute.

Aspaldi honetan zeresan ugari eman duen Mikel Goñi pilotari nafarra etortzekoa zen gaur Bergarara baina errehabilitazio prozesua jasotzen dabilela-eta, Xala izango da bere ordezkaria. Xala eta Lasa 2001/02 denboraldian binakako txapelkunak izan genituen eta elkarrekin jokatu dute gaur. Aurrean Titin III.a-Apeztegia

bikotea izango dute. Titin zein Lasa primerako errematzaileak ditugu eta beraz partidua ikusgarria izan daiteke gaur gauekoa. Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du partidua. Aurretik beste partidua izango da: Chafeek eta Eulatek Berraondoren eta Auxkinen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Korrika 13k eta Aspe enpresak antolatutako jaialdi honetarako sarrerak frontoiko leihatilan jarriko dira salgai: beheko eserlekuen prezioa 20 eurokoa da eta goiko eserlekuetarako sarrerak, berriz, 10 eurotan salduko dira. Euskararen aldeko jaiak izanik eta pilotarien maila kontuan izanda, ziurrenik ikus-

le ugari izango dira gaurko jaialdian eta giroa ere primerakoa izango da, aspaldian gutxitan izan dugu-eta goi mailako pilotariak Bergaran ikusteko aukera.

DEBARROKO TXAPELKETAN

Bergara KEko pilotariak Debarroko Txapelketan dihardute. Orain arte Antzuolaren eta Eskoriatzaren aurka jokatu dute. Antzuolarrei bi partidua irabazi zizkieten, kadete mailan (22-11) eta senior mailan (22-3). Martitzenean, berriz, Eskoriatzan jokatu zuten. Gazte mailan (22-3) eta senior mailan (22-20) galdu zuten bergararrek. Datorren astean Arrasaten jokatu dute pilotari bergararrek, Uarkapen.

Gipuzkoako Eskola Arteko Gimnasia Txapelketa bihar

E.M.

Bihar, zapatua, Gipuzkoako Eskola Arteko Gimnasia Erritmiko Txapelketa jokatu da Labegaraierako kiroldegian, 17:00etatik aurrera. Alebin, infantil, kadete eta gazte mailako gimnastak izango dira lehian. Bergararrei dago kienez, Sarai Gallegok Ipintza institutua ordezkatu du infantil mailako proban. Sarai Gallegok pilotako ariketa egingo du biharko saioan. Aranzadi Ikastolako Irati Arteagak, berriz, mazoekin hartuko du parte, kadete mailan. Era berean, Antzuolako Herri Ikastetxeko hiru gimnasta izango dira biharko txapelketan: Iraitz Gastiain, Uxue Arregi eta Maialen Toledo. Hirurek zintarekin jardungo dute, gazte mailako artean. Aipatutako gim-

nasta guztiak Ariznoa taldean dabilta aurten, Sonia Corredera entrenatzailearen esanetara hain zuzen.

Biharko txapelketan aspaldi honetan emaitza bikainak lortu dituzten gimnastak ikusteko aukera izango dute Labegaraierara hurbiltzen diren ikusleek. Ariznoa taldeko arduradunek herriko zaleei txapelketara joateko dei egin nahi diete.

HARROBIA, BIKAINA

Azken gimnasia txapelketa Bergaran otsailaren 15ean jokatu zen. Gogoratuko duzue, orduan ere Ariznoako gimnastak onenekin batera izan ziren B mailako Eskola Arteko Txapelketan. Sonia Corredera taldeko entrenatzailea pozik dago gimnastek egiten diharduten lanarekin.



JOSE AGUAYO

Argazkian, otsailaren 15eko txapelketan parte hartu zuten gimnasta gaztetxoak.

ESKUBALOIA

Senior mailako taldeak Gure Auzune hartuko du domeka eguerdian Labegaraieran

Bergara KEko senior mailako mutilen taldeak Gure Auzuneren aurka jokatu du domekan Labegaraierako kiroldegian, 12:15ean. Aurreko astean Bergarak Sestaon galdu zuen, 32-21; senior mailako nesken taldeak Ereintzari irabazi zion Bergaran, 27-17; eta gazte mailako mutilek Egiaren aurka galdu zuten, 23-27.

MENDIA

Oletara eta Axpera irteera, domekan, Gorla Alpino eta Pol-Pol taldeekin

Gorla Alpino eta Pol-Pol mendizale taldeek domekan, martxoaren 23an, Oletara eta Axpera joateko irteera antolatu dute. Bergarako mendizale guztiei irteeran parte hartzeko dei egiten diete. Irteera 07:30ean izango da, frontoitik. Bazkaltzeko Bergaran izango dira. Txartelak Pol-Pol tabernan eskura daitezke.

FUTBOLA

Infantil mailako taldeak eta nesken taldeak Ipintzan jokatu dute bihar, zapatua

Bihar bi futbol partidua izango dira Ipintzan: infantil mailako taldeak Zumaia-ko aurka jokatu du zapatu goizean, 11:00etan: arratsaldean, berriz, Igor Larrañagak zuzentzen duen nesken taldeak Eibartarrak taldea hartuko du, 16:00etan.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

SAILKAPENA

LEHEN MULTZOA	P	J
1. Mongatxurrak	9	3
2. Bayer	6	2
3. Agirrebeña	6	3
4. Aterpe	6	3
5. Komando Piperrak	3	4
6. Torrekua	0	4

HIRUGARREN MULTZOA	P	J
1. Pagomendi	9	3
2. Artusamak	9	3
3. Txipiron	6	3
4. Fac	3	3
5. Ganbara	3	4
6. Etengabe	-3	4

PARTIDUAK

BIGARREN MULTZOA	P	J
1. Bedarreta	9	3
2. A Ze Flaxa	6	3
3. TNT	6	3
4. Argandolas	3	2
5. Belengua	3	3
6. Las putas de Satan	3	4
7. Cipote Nucleico	0	4

LAUGARREN MULTZOA	P	J
1. Canalejas	12	4
2. Errotagain	9	3
3. Pirulotarrak	9	3
4. Dedo Pafarru	3	2
5. Irubide	3	2
6. La Quinta del Buitre	1	4

ZAPATUAN, BARRUAN
09:30: Pirulotarrak-Canalejas. Mongatx.
10:30: Mongatxurrak-Torrekua. Canalejas
ZAPATUAN, KANPOAN
16:30: Argandolas-Belengua. Artusamak
17:30: Artusamak-Pagomendi. Belengua

DOMEKAN, BARRUAN
09:30: Fac-Txipiron. TNT
10:30: A Ze Flaxa-TNT. Fac
16:00: Errotagain-Dedo Pafarru. Artusamak
17:00: Bayer-K. Piperrak. Errotagain
18:00: Irubide-La Q. del Buitre. Las p. de Sat
19:00: Las p. de Sat.-Cipote Nuc. La Quinta

Santa Marinako bi lan ere han dira: Kristo Gurutziltzatua eta Santa Marina irudia

San Pedro elizako margo berriak Donostian

MONIKA BELASTEGI

Elizbarrutiko Museoan daude ikusgai San Pedro elizako martirien 12 margoak. Zaharberitze sakona egin die museoak eta orain ikusgai jarri ditu. Santa Marina elizako bi lan ere hantxe daude: Santa Marina eta Burgosko Kristo Gurutziltzatua.

San Pedroko hamabi margo horiek dira, hain justu, erakusketaren oinarria. Koldo Apestegei museoko zuzendariaren esanetan, margoak oso egoera kas-karrean zeuden, eta zaharberitze lanak Bilboko Restauraciones Siglo XXI SL enpresak egin ditu. Enpresa horren iritziz, bi arrazoi nagusi daude egoera hain kas-karrean egoteko: batetik, urte-tan zehar baldintza egokietan egon ez izana; eta, bestetik, orain

dela hainbat urte izandako zaharberitze desegokia. Hori horrela, zaharberitzearen helburua izan da, alde batetik, multzoaren etorkizuna ziurtatzea eta, beste aldetik, lanak hutsaltzen zituzten erantsitako margo guztiak kentzea.

Horretarako, besteak beste, egurrezko euskarriak tratatu dituzte, xilofagoz garbitzeko; geruza piktorikoa jasota zegoen lekuetan itsasgarri naturalekin itsatsi dute eta margoak garbitu egin dituzte.

FEDEDUNAK HUNKITZEA HELBURU ZUTEN MARGOAK

Fededunen bihotzak ukitzeko eta arimak hunkitzeko eta aldatzeko asmoz egindako irudien multzoan sar daitezke San Pedroko margoak. Hamabi dira, eta hamabi apostoluen martirioak irudikatzen dituzte. Barroko estetikaren

arabera egindakoak dira, Trentoko Kontzilio ondorengo elizaren zerbitzura. Fededunaren begirada erakarri eta kontatzen dituzten historiak ulertarazi nahirik, antzerki tankera duten konposizioak dira. Bestetik, eszena zurrunbiltsuak erakusten dituzte, pertsonaiak mugimendu dramatikoetan bihurriturik, baita argi-itzal kontrajarriak eta giro iluna ere. Kolore gutxi dute: arropa batzuetan, armaduretan eta martirien gorputz zurbil erdi biluzietan bakarrik. Adituen esanetan, pintura flandestarra orotarazten du koadrootako marrazki-erak.

Erakusketa apirilaren 28ra arte egongo da ikusgai Elizbarrutiko Museoan, Sagrada Familia kaleko 11. zenbakian, honako ordutegian: martitzenetik zaptura, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.



Santiago txikiaren martiritza. Goian, zaharberitu aurreko irudia; behean, zaharberitu ondoren.

ELIZBARRUTIKO MUSEOA

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan


MONIKA BELASTEGI

Etzi, domeka, egingo du emanaldia Udal Musika Bandak. 12:30ean izango da, eta bost lan egingo ditu. Obretako bat, *Errondariak dantzari*, Hernaniko Euskal Jaietan saritua izan zen, 1909an.

Hileroko kontzertua egingo du Udal Musika Bandak, 12:30ean, Udal Pilotalekuan. Bost lan egingo ditu: lehenengoa *Errondariak dantzari* izeneko euskal martxa izango da. B. De Gabiolak konposatu zuen eta 1909an Hernani-

ko Euskal Jaietan lehenengo saritua jaso zuen; horren ondoren *Efignia en Auslis* C. W. Gluck-en obertura egingo dute; *Jazz suite No. 2* Dimitri Shostakovich-en lanean izango da hirugarrena; laugarrena Pablo Sorozabalek konposatu satutako *Katuska* lanaren bigarren fantasia; eta bosgarrena, P. Scheffer-en *A sentimental selection* lana.

Bestalde, apirilaren 13ra iragarrita zuten kontzertua ere egingo dutela aurreratu dute bandako iturriek. Korrika egun horretan iristen da eta eguna geroztako asmoz aldatu dute eguna.



Bandak 12:30ean egingo du emanaldia, Udal Pilotalekuan ohi bezala.

'Trabena-Txoua' antzezlan, Pol-Pol tabernan, hilaren 28an

MONIKA BELASTEGI

Goaz Debako antzerki taldeak *Trabena-Txoua* antzezlan egingo du datorren egubakoitzean, hilak 28, 22:30ean, Pol-Polen. Umerez jantzitako ikuskizuna da eta ...ta segi aurrera plataformak antolatu du.

Hiru antzerki laburrez osatutako ikuskizun arina da Goaz antzerki taldeak datorren egubakoitzean egingo duena.

Hiru istorio dira, baina kokapena komunean dute: geltoki bateko kantina baten gertatzen dira hirurak.

Lehenengoak *Aberi bat, aberi bi*, hiru aberi du izena eta egilea Luis Mari Agirrezabala da. Autoak huts egin eta kantinara sartzen den gidariak mekanikari bat egingo du han lagun. Bigarren istorioa egile berarena da eta *Teleikuskopioa* du izena. Furtibot partidua ikustera kantinara joan behar izan duen gizona da protagonista. Gainerako bezerekin kontaktzen dizkien gauzengatik jakingo dugu haren bizitzaz.

Hirugarren istorioak *Celso-kian...* du izena; Goizane Aizpuru da egilea eta goiz hotzetan kantinan gertatu izan diren pasadizoak irudikatzen ditu.

KULTURAPILULAK

Koadrilen Aratusteetako argazkiak eskuratzeko aukera Nahikari tabernan

Azken urteotan moduan, Aratusteetan koadrilei argazkiak ateratzeko Nahikari tabernan. Hori horrela, argazkiak ikusgai dituzte tabernan, eta kopiak nahi dituenak han eska ditzake.

Horrez guztiaz gain, bideoa ere grabatu zuten Aratusteetan eta ikusgai egongo da asteburu osoan.

Bestalde, Azurren argazki erakusketa ere ikusgai dago Nahikari hilabete bukaerara arte. *Euskal Txokoak* bildumako argazkiak raketak bat da erakusketaren oinarria, bildumako hamahiru argazkiak osatzen dute erakusketa.

E, TXO!

GUREGAIK/ TXARTELAK

GAZTETXEKO ASTEBURUKO EKITALDIK

Gaur, egubakoitza, zinema emanaldia izango dugu gaztetxean 00:00etan. *The cube* filma ikusteko aukera izango dugu.

Bihar, berriz, zapatua, kontzertua izango da, 22:30ean. Hiru taldek eskainiko dute kontzertu hori: Barley Juice, Captain Nemo eta Edols taldeek, hain zuzen ere.

GAZTEMANIAK MAKETA LEHIAKETA

Apirilaren 30era arte dago zabalik maketa lehiaketa horretarako lanak aurkezteko epea. Gipuzkoako musika talde eta bakarlari guztiek dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Informazio zabalagoa topatuko duzue www.gaztemaniak.net webgunean.

ITZULPEN PRAKTIKAK EGITEKO BEKAK

Bi beka emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta itzulpen praktikak egiteko aukera eskainiko du. Itzulpen gintza eta Interpretazioko ikasketak egiten dihardutenek izango dute beka horiek lortzeko aukera.

Praktikaldia ikasketen prestakuntzaldiaren barruan egongo da, eta uztaillaren 1etik irailaren 30era bitartean 250 orduko praktikaldia egiteko aukera izango dute bekadunek.

Maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira beka horiek lortzeko eskaerak.

Informazio zabalgoa nahi duenak honako telefono zenbakira dei dezake: 943 11 35 13. Bestela, e-postaz eska ditzake argibideak, honako helbide honetara idatzita: blarranaga@kultura.gipuzkoa.net.

Gazte txartela, Europa guztian balio duena

AINTZANE IRIZAR

Euskadiko Kutxak kudeatuko du hemendik aurrera Gazte Txartel berritua. 14 eta 26 urte bitarteko gazteei hainbat abantaila ematen dizkie txartel horrek, EAEn bertan eta baita Europa osoan ere.

Zine aretoetan, museoetan, garraiobideetan eta bidaietan, besteak beste, hamaika abantaila eskaintzen dizkie Gazte Txartelak 14 eta 26 urte bitarteko Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei.


1987an sortu zuen Gazte Txartela Eusko Jaurlaritzak. Ordutik, abantaila ugariz gozatzeko aukera izan dute milaka gaztek. Orain,

baina, abantaila horiek handitu egin dituzte eta Europako 34 herrialdeetan ere balio izango du txartel horrek.

ESKAERA EGITEKO

Esan bezala, beharrezko baldintza bat da 14 eta 26 urte bitartean izatea. Eskaera egiteko, bestalde, www.gazteukera.net web orrialdean aurkituko duzuen eskaera orria bete eta Euskadiko Kutxara jo beharko duzue. Hamar euro ordaindu behar da Gazte Txartela egitea.

Etxean Internet erabiltzeko aukerarik ez baduzue, berriz, Irizar jauregian dagoen KZGunera jo dezakezue, edo bestela, Gazte Informazio Gunera, egunean, egubakoitzean edo zapatuan.



Europa guztian balio du hemendik aurrera Gazte Txartelak.

LOTSABARIK/ Gorka Buruaga

“Oso zaila da Bergaran ligatzea”

AINTZANE IRIZAR

Ikasketa konplexu samarrak egiten dihardu Gorkak; beharbada horregatik, ohea egiteko denborarik ere ez du hartzen. Hori bai, telebista ikusteko denbora dezente hartzen du, aitaren kexen arabera.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Astronauta; baita artzain ere, aitona artzaina zen-eta.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Espero dut ezkondu eta pare bat seme-alaba izatea. Eta, zelan ez, gustuko lana izatea espero dut.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Amak egunero esaten dit ohea egiteko; gaur bertan ere ez dut egin. Aitak, berriz, kalera sarriago irteteko, etxean telebista ikusten egon beharrean.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Gaur egun nahiko askatasun ematen didate.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta familiari.

• Zure bertute bat?

Ingurukoei barrea eragiten ahalegintzen naiz.

• Eta hutsune bat?

Erraz haserretzen naiz. Asko gustatzen zait lagunei txantxak

egitea, baina niri egiten dizkidatenean, izugarri haserretzen naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Orain, adibidez, *Egunkaria* rekin gertatzen ari denak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Izeba batek esaten zidan ile polita nuela, baina orain ez dit horrelakorik esaten.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari, ahoari, batik bat.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez; gainera, oso zaila da Bergaran ligatzea.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Nire gurasoek beti irakurtzen dute aldizkaria, e!



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa • ZALETASUNAK: Musika entzutea, parranda eta futbitoa
LIBURU BAT: 'Los hijos del capitán Grant', Jules Vernearena • FILM BAT: 'Los otros' • MUSIKA TALDEA: System of a down • KIROL TALDEA: Real Madrid

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Álvarez



ZAHARREN ETXETIK

San Joxepe elkarteak Gipuzkoako Nagusien Kontseiluak deitutako 2003ko Solidarioak lehiaketan hartuko du parte

EDU MENDIBIL

San Joxepe elkarteak Gipuzkoako Nagusien Kontseiluak deitutako 2003ko Solidarioak izeneko lehiaketan hartuko du parte. Lehiaketa horrek Gipuzkoako zaharren egoitzen eguneratzea du helburu, gaurko gizartearen beharretara egokitzeko urratsak emateko. San Joxepekoek uztailearen bukararako idatzi beharko dute proiektua.

Besteak beste, gizarte zaharren parte-hartzea bultzatzea, diskriminazioa baztertzeko eta solidaritatea bultzatzeko urratsak ematea, eta XXI. mendean zaharrek izan dezaketen betebeharra zehaztea dira 2003ko Solidarioak lehiaketaren helburu nagusiak. Era berean, Gipuzkoan dauden zaharren egoitzen berritzea lor-

tu nahi da lehiaketarekin. San Joxepeko Zuzendaritzak etengabeko hobekuntza lortzeko urratsak ematen dihardu azken urteotan, eta, hori dela eta, lehiaketan parte hartzeko erabakia hartu du.

UDARAKO PROIEKTUA IDATZITA

Gauzak horrela, uztailearen 31rako elkartearen birmoldaketaren gaineko proiektua idatzita izan beharko dute eta uda ostean proiektua praktikara eramaten hasiko dira. Lehiaketara aurkezten diren lanak baloratuko dituen batzordeak Gabonak aldean emango du aditzera erabakia. Lehen saria irabazten duen elkarteak 15.000 euro jasoko ditu eta, era berean, 10 lagunendako Euro-para bidaia ere eskuratuko du. Beste lau finalista izendatuko dituzte eta horietako bakoitzari 3.000 euro eta plaka oroigarria emango dizkiote.



Argazkian, San Joxepeko bazkideek joan zen urtean egindako batzar orokorreko irudi bat.

Raquel Barcenilla psikologoa hizlari izango da eguaztenean San Joxepen

E.M.


San Joxepe Arrasateko ICTE-rekin (Hirugarren Adinerako Institutu Komunitarioa) batera antolatutako hitzaldi sortarekin jarraituz, Raquel Barcenilla psikologoa *Evaluar y controlar el estrés* izenburuko hitzaldia egingo du eguaztenean, hilaren 26an, erretiratuen elkartearen, 17:30ean. Raquel Barcenillak memoria lantegia zuzendu zuen iaz San Joxepen. Datorren eguazteneko hitzaldian estresa kontrolatzeko teknikak azalduko dizkie San Joxepera hurreratzen direnei.



Raquel Barcenilla psikologoa memoria lantegia zuzendu zuen iaz.

entzule ugari izan ziren. Hitzaldi sortarekin amaitzeko, Amagoia Muruamendiaraz mediku arrasatearrak *Técnicas para el afrontamiento individual del estrés* izango du aztergai datorren apirilaren 2an San Joxepeko hitzaldi artoan, 17:30ean.

amagoia Muruamendiaraz mediku arrasatearrak *Técnicas para el afrontamiento individual del estrés* izango du aztergai datorren apirilaren 2an San Joxepeko hitzaldi artoan, 17:30ean.



Bazkide kuota ordaintzeko epea zabalik

San Joxepeko Zuzendaritzak jakinarazi duenez, bazkide kuota ordaintzeko epea zabalik dago. Urteko kuotak 8,40 euro balio du, eta bazkideek harrera gelan egin dezakete ordainketa, 11:00etatik 13:00etara edo 17:00etatik 18:30era. Ordaintzeko epea apirilaren bukaerara arte egongo da zabalik. Hala ere, Zuzendaritzak kuotak helbideratuta izatea eskertuko luke, gauzak errazteko. Gaur egun San Joxepe elkarteak 1.646 bazkide ditu. Joan den urtean 98 lagun egin ziren San Joxepeko bazkide.

ile
apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintzaOstalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunakSan Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09Ganbara
TABERNAHeure erara
ibiltzeko!Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75IRRINTZI
kafetegiaIrala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Zein da 1976an sortutako Zubiaurreko elkarte horren izena?

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat maketa egongo dira Foru Aldundiak udaletxean jarriko duen erakusketan?

- A/ 8.
- B/ 14.
- C/ 23.

2.

Zein euskal musikaririk konposatu zuen *Katuska* izeneko zarzuela?

- A/ González Bastida.
- B/ Sorozabal.
- C/ Escudero.

3.

Zein da Peña Athletic Bergara lagunarteko presidentea?

- A/ Iزارo Aperribai.
- B/ Mikel Aiastui.
- C/ Juan Mari Aspiazu.

PINTOREBERGARARRAKGAUR


Jose Ramon Aiastui

EDU MENDIBIL

Jose Ramon Aiastui (Bergara, 1940) orain dela 20 bat urte hasi zen pintatzen, Jose Mari Ugalderen laguntzarekin. Eta Juanjo Altunarekin ere ibili zen ikasten. Orain, erretiratuta dagoenez, pinturari tarte handiagoa eskaintzen dio. Asteaz bizpahiru egunez pintatzen du, oso gustura, gainera: "Mendizalea naiz. Nire iritziz, zuhaitzek, mendiek, itsasoek eta naturako beste elementu batzuek duten argiaz gozatzeko bide berezia da pintura. Ikaragarri gozatzen dut". Kalean pintatzea izugarri gustatzen zaio: "Bergarak motibo aberats asko dauzka: kaleak, etxe zaharrak, jauregiak edo Agarreko Garaixea, esaterako. Deba ibaiak dituen zubiak ere oso interesgarriak iruditzen zaizkit". Inpresionismo ukitua duen pintura errealista atsegin du eta Monet da bere pintore gustukoenetako bat.

1992an Bergarako pintoreek Ortonovokoekin egindako elkartrukean hartu zuen parte, eta egunen baten banakako erakusketa egin nahi luke. Bitartean, margotzen jarraitzen du. Egunotan San Martzialen gaineko serie bat egiten dihardu.

"Nire iritziz, naturako elementuek duten argiaz gozatzeko bide berezia da pintura"



E.M.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ELENA AGIRRErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Elena! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Ezkerrekoa Jauregi etxekoa eta eskumakoa Azedo-Loiola jauregikoa** / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-C.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Cuétera Tosta Rica gailetak

800 g-ko kaxa

1,46 €

243 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



EDEL
TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kordinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93



BERGARA
Mikel Elkorobereizbar
Martxoaren 23an, 5 urte.
Urte askotarako!
Aitita, amama eta Eli.



BERGARA
Oihana Aldazabal
Martxoaren 14an, 14 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Danel Gantxegi
Martxoaren 17an,
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoa; bereziki, Leire.



ANTZUOLA
Nerea Telleria
Martxoaren 17an, 28 urte.
Urte askotarako!
Joan Santos.



BERGARA
Aloña Mondragon
Martxoaren 21ean,
28 urte. Urte askotarako!
San Festa.



ANTZUOLA
Nerea Larrañaga
Martxoaren 18an, 24 urte.
Urte askotarako!
Eider, Iker eta Alaitz.



BERGARA
Naiara Azkarate
Martxoaren 20an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainara Plala
Martxoaren 22an, urtebete.
Zorionak! Etxekoak, aitita,
amama eta osaba.



BERGARA
Kimberly Castro
Martxoaren 19an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitziber Pérez
Martxoaren 22an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gaizka Gantxegi
Martxoaren 22an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Idoia Narváez
Martxoaren 26an, 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Danel Santamaria
Martxoaren 20an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maddi Bengoa
Martxoaren 20an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ariana Sasieta
Martxoaren 23an, 5 urte.
Urte askotarako!
Elene, aita eta ama.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara:
Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola:
Udal Liburutegia,
astelehenetan
17:00etatik 19:00etara
Elgeta:
Erosle-Baitxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osoak jaso ahal izango duzu zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

BOLU SUKALDEAK



2000eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 21a / 151. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Oinezkoen babesgune handi bat egingo dute Egurribai parean

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako Foru Aldundiak Antzuolako goiko aldeko sarreran hainbat aldaketa egiteko proiektua egin berri du. Orain dela gutxi bidali diete proiektu hori Udaleko arduradunei. Egurribai baserriaren parean egingo dituzte errepideko lan horiek.


Oinezkoen babesgune handi bat (irratxo bat) egiteko asmoa dute Diputazioko arduradunek Egurribai baserriaren parean, Deskarga alderako errepidean. Hori ere erakusten du Diputazioak Antzuolako Udalera bidali berri duen proiektuak.

Diputazioko arduradunen asmoa da lehenbailehen lan horiekin hastea. Gainera, ez dira oso lan konplexuak izango, eta ez dute denbora luze behar izango lanok egiteko.

HELBURUA, ABIADURA MURRIZTEA

Lan horien helburua izango da, batez ere, Deskarga aldetik behera datozen ibilgailuen abiadura murriztea. Horrela, oinezkoen babesguneak balaztatzea eragingo die goitik behera abiadura handian datozen ibilgailuei, eta Errekalde parera iritsi orduko, abiadura motelagoa eroango dute.

Kontuan hartu behar dugu oinezko ugari ibiltzen direla erre-



130 bat metro luze izango da Egurribai parean egingo duten oinezkoen babesgunea.

pidetaren alde batera eta bestera oinez. Istripu bat baino gehiago eragin du abiadura handiak inguru horretan, eta arrisku handia dago. Horregatik, Udaleko arduradunek behin baino gehiagotan eskatu diote Diputazioari saihasbidearekin zerbait egiteko.

Horrela, orain dela urtebete, ia zozkeroan, hain zuzen, egin zituen lehendabiziko lanak Diputazioak. Orduko hartan, Errekalde parean oinezkoendako babesgunea egin zuen; hau da, oinezkoendako pasabidearen inguruan altueradun gune bat

egin zuten, oinezkoak babesteko. Oraingo proiektuarekin, berriz, ibilgailuek Errekalde parera iritsi baino lehen abiadura murriztea izango da helburua.

Aurrerago, Lapatza pareko bidegurutzean ere aldaketaren bat egiteko asmoa dute.

PRESOAK

Jose Luis Erostege 'Eltzikorta' Manzanares herrian erroldatu dute haren baimen barik

AINTZANE IRIZAR

Jose Luis Erostege *Eltzikorta* antzuolarra Herrera de la Mancha espetxean dago preso duela urtebete ingurutik. Komunikabideen bitartez jakin dugu oraingo astean, beste hainbat preso bezala, Manzanares herrian erroldatu dutela, haren baimen barik.

Oraingo astean *Gara* egunkariaren bitartez jakin dugu Herrera de la Mancha espetxean preso dauden 17 euskaldun Ciudad Realgo Manzanares herrian erroldatu dituztela.

Preso horietako bat da *Eltzikorta*. Abokatuen esanetan, presoek ez dute erroldatze horretarako baimenik eman, ezta dokumenturik sinatu ere, legediak

eskatzen duen moduan.

Antzuolako Udaleko arduradunek esan digutenez, ez dute Manzanaresko Udalaren inolako jakinarazpenik jaso, horrelako kasuetan gertatzen den moduan; orduan, oraingoz, Antzuolan erroldatuta jarraitzen du.

Herriar batek beste herri baten erroldatu nahi duenean, herri horretako Udalaren zere-

gina da aurreko Udalari eskaera horren berri eman eta baja emateko eskatzea.

Erostegearen senitartekoen argi laga digute Jose Luisek ez duela Manzanaresen erroldatze inolako asmorik, Antzuolan erroldatuta jarraitu nahi duela. Dena dela, ez dakite Jose Luisi errolda aldaketa horren gainean zelako informazioa eman dioten.

LABUR

Bihar, zapatua, umeendako ipuin kontalaria

Antzuolako Udal Liburutegiak antolatuta, Antton Irusta ipuin kontalari bizkaitarraren emanaldia izango dugu bihar, zapatua, *Katxiren ibilerak* izenburupean. Liburutegian bertan izango da saio hori, 18:00etan.

Ez da ipuin kontaketa soilak izango; izan ere, aho korapiloak, magia eta ipuinak uztartuko ditu Irustak saioan. Ez dago adin mugarik emanaldi horretarako; hortaz, liburutegiko ateak zabalik egongo dira ipuinak entzun nahi dituenentzako.

Eskolako hitzaldia hilaren 31ra atzeratu dute

Datorren astelehenean, hilaren 24an, nerabetsunaren gaineko hitzaldia ematekoan zen Herri Ikastetxean Xabier Tapia psikologo bergararra.

Bada, atzeratu egin dute hitzaldi hori; hilaren 24an izan beharrean hilaren 31n egingo du berbaldia Tapiak Herri Ikastetxean, nahi duten guraso guztiendako. Hitzaldi horretan nerabeen arazo eta gatazken gainean jardungo du Xabier Tapiak.

Martitzenean 'Egunkaria'-ren aldeko batzarra

Aurreko asteko martitzenean egin zuten herrian *Egunkaria*-ren aldeko herri batzardea sortzeko lehendabiziko batzarra. Han batutakoek aurreko eguneko kale bilkurak antolatu zituzten, baita *Egunkaria*-ren materiala saldu eta hainbat harpidetza egin ere.

Aurrera begira ere hainbat ekimen antolatze asmoa du herri batzordeak. Lehenengo batzarrera joan ez zirenek badute, hortaz, beste batzarra bat hilaren 25ean, 18:30ean, udaletxean.


KIROLA

Domeka goizean jokatuko dute gazte mailako txirrindulariek Uzarragako Igoera

A.I.
Gazte mailako txirrindulariek urtero jokatzeko denboraldi hasieran Uzarragako Igoera. Etzi, domekan, izango dute igoera hori, Aiastui elkarreko kideek antolatuta. 10:00etan hasiko da lasterketa, Antzuolan, eta 12:00etan bukatuko da, Uzarragan.

Antzuolan bertan hasiko dute lasterketa gazte mailako txirrindulariek, goizeko hamarretan. 70 kilometroko ibilbidea egin ondoren, Uzarraga gainean amaituko dute lasterketa, eguerdian, 12:00ak aldera.

Aiastui Txirrindulari Elkarreko antolatu du lasterketa hori; hain zuzen, aurtengoa lasterketa antolatzen duten 28. aldia da.



ARTXIBOA

Asier Muxika gazteak irabazi zuen iaz Uzarragako Igoera.

IBILBIDEA

Esan bezala, goizeko hamarretan Antzuolan bertan hasiko dute lasterketa; Antzuolatik Bergara aldera abiatuko dira eta handik Antzuolara itzuliko dira. Antzuolatik, berriz, berriro abiatuko dira Bergara aldera, eta handik Oñatiraino joango dira. Oñatitik

Antzuolara itzuliko dira. Antzuolatik, berriz, Soralezera joango dira eta, handik bueltan, Uzarraga igotzeari ekingo diote txirrindulariek. Guztira, bi ordu inguru behar izango dituzte 70

kilometroak egiteko, antolatzaileek egindako aurreikuspenaren arabera.

Ibilbide gogorra da, nolana ere. Iaz, esaterako, 116 txirrindularik hasi zuten lasterketa eta

horietatik, 65 txirrindularik bererik ez zuen bukatu ahal izan. Azkenean, esprintean erabakitzeko etapa, eta Muebles Ordizia taldeko Asier Muxika txirrindulari gazteak irabazi zuen proba.

HERRITARREN HITZA / Ainhoa Ugarteburu · Soziologoa

Udaberrixa?

Gaur hasiko da jendiak hain maiztasun daben urtarua. Egun batzuk lenau ia geuregana etorritza bazeuan be, ofizialki gaur da udaberriko lenengo eguna. Jendiak aurtun gustora hartuko dau udaberriaren etorreria, euki dogun negu hotz, eta batez be euritsu honen ondoren.

Hala be, eta seguruenetik aspaldi honetan pasatzen jaten moduan, urtaruan aldaketarik gero eta gutxiago poztzen nau, badiardogu urte luzeetan, negu, uda, udazken edo udaberri izan, beti antzerako aurpegi-ekin, kezka berdinekin, eta

eztakitt zeatik baina uste dot udaberri hau be ez dala ezberdina izango. Otsaila motza da, baina notiziaz lepo egon zan, hiru egunian 30 atxilotu, euskaraz egiten zan egunkari bakararra itxi zeben, eta berriz agertu zien tortura salaketak; berriz esaten dot, ez deigun ahaztu urtiak diela atxilotuak torturak salatu dituztela, etengabe. Gerra hotsak, eta espainiar betiko



“Egoeria aldatzen hasteko sasoian gare”

frankisten lotsaga-bekeixia, gehiengo osuak babestuta, nahi daben guztia egiteko aukeria eskutan daukela.

Ez die, ez, garai onak, baina horrek asko kezkatzen banau be, gehixau kezkatzen nau amore emutiak, gauzak horrela darella pentsau eta “tantua eurantzako”, “guriak ein jok/n” esatiak.

Zaila da, ez daukagu babestuta gaen sentimenduik, beldurra

libria da, baina garbi daukat, herri honek badaukala erreazionatzeko gaittasuna, gauzak esan eta egiteko gogua, eta horri eutsi bihar dotsau, sartuta garen tunel beltz honetatik urtetzeko.

Nahikua da! esatia aspaldi pasau zan, oin lan eittia da gure biharra. Batu biharra ikusten dot ez bakarrik defenditzeko baita eraikitzeke be, egoeria aldatzen hasteko sasoian gare. Asko ga, gogua be badauku, indarrak metatzia bezelakoik ez dao aurrera eitteko, batu gaittezen beraz. Behinguatik benetako udaberrixa iritsi dein.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Martxoak 22
11:00: Antzuola-Legazpi (2. erreg.)
PILOTA
Martxoak 21 (Udaberri Saria)
20:30: Olalde-Zumaiako (Nag. paletaz)

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 3 Amaiak Bat 2 (Erreg.)
Antzuola 3 Beti Ona 0 (Gazteak)
PILOTA
Deba Arroko Txapelketa
Bergara-Olalde (kadeteak) 22-11
Bergara-Olalde (nagusiak) 22-3
Gipuzkoako Txapelketa
Olalde-Ikaskirola (infant.) 18-10

Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-urrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

ABAD

PINTURAK

ANTZUOLA

PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko martxoaren 21a / 135. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Zazpi urte beteko ditu gaztetxeak zapatuan

OXEL EROSTARBE

Aurreko astean umeendako eguna antolatu ostean, gazteendako ekitaldiak izango dira aste bukaera honetan gaztetxean. Bihar, zapatua, 7 urte beteko dira herriko gazteek gaztetxea okupatu zutela. Besteak beste, bazkaria eta kontzertua antolatu dituzte.

Gaztetxearen zazpigarren urteurrena dela eta, martxoan barrena ekitaldi ugari antolatu dituzte herriko gazteek. Azken asteotan hainbat gai landu ostean, oraingo aste bukaeran gaztetxearen urteurrena ospatuko dute. Bihar eguerdian hasi eta domeka goizaldera arte festa egingo dute gaztetxeok. Eta herritarrek antolatutako ekintzetan parte hartzera gonbidatu gura dituzte. Hortaz, urtero moduan, adin askotariko jendea elkartuko da herriko gaztetxean.

Eguerdian hasiko da gaztetxearen festa: 12:30ean, triki-txikiteoa egingo dute; eta tabernetatik ibilalditxo egin ostean, 14:30ean bazkaria egingo dute gaztetxe ondoko lautadan. Oraindik izena eman ez dutenek gaz-



GOIBEKOKALE

Aurten ere giro aparta egongo da gaztetxeak antolatutako bazkarian.

tetxean galdetu beharko dute ea txartelik geratzen den.

SKA MUSIKA GOIZALDERA ARTE
Gaezan, Ttak eta Cyprinidians

taldeen kontzertua izango da gaztetxean. Kontzertua 23:00etan hasiko da. Urtero moduan, goizaldera arteko festa antolatu dute herriko gazteek.



Udalak 9.015 euro eman ditu eliza berritzeko

Elizia berritzeko lanak egingo dituzten dirulaguntzia emotia erabaki dau Gobernu batzordiak. Udalan dirulaguntzia 9.015 eurokoa izango da. Dirulaguntzia bi epetan ordainduko dabe: erdixa aurten eta beste erdixa datorren urtian. Dirulaguntzia elizako erdiko erretaulia eta San Adrian ermittia konpontziak izan zittuan gastuak kitzeko eta erretaula txikixa konpontzeko izango dira. Honekin lanekin guztiz barrituta geratuko da elizia. / O.E.

KORRIKA

Korrika datorrela eta, ekitaldi ugari Elgetan

O.E.

Apirilaren 7an, Arrasatetik Elorriorako bidea hartuko du Korrikak. Elgetarrok Kanpanzarren izango dugu Korrikako testigua eramateko aukera. Korrikaren aldeko batzordeak ekitaldi ugari antolatu ditu apirileko lehengo aste bukaerarako: apirilaren 5ean, *Kutxidazu bidea, Ixabel* antzezlan; apirilaren 6an, Txan magoa; eta apirilaren 7an, Korrika Txikia eta askaria.

'KUTXIDAZU BIDEA, IXABEL' ESPALOIAN
Martxoaren 15ean estreinatu zuten antzezlan Billabonan. Orain, Euskal Herriko hainbat txokotara eramango dute, tartean Elgetara. Aktore ezagunek

hartzen dute parte *Kutxidazu bidea, Ixabel* antzezlanean; besteak beste, *Sorginen Laratza* saioan agertzen den Anjel Alkain. Gainerako aktoreak Iñaki Agirrezabal, Ixabel Agirresarobe, Egoitz Lasa, Ainere Tolosa eta Mikel Sarriegi dira.

KORRIKA-LAGUNTZAILE 10 EUROGIK
Tabernetan daude salgai Korrika-laguntzaile egiteko txartelak. Txartelak hamar euro balio dute. Eta Korrikari laguntzeaz gainera, aurtengo logoaren tximeletaren pina eta laguntzaile zarela dioen txartela emango dituzte.

Bihar eta etzi mahaia jarriko dute Herriko Plazan, eta Korrikaren aldeko materiala salduko dute bertan.



Aktore ezagunek hartzen dute parte *Kutxidazu bidea, Ixabel* antzezlanean.



ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

250 tantan etorkizuna

Milla biztanle ditugu herrixak. Elgetarron laurdena, plazan batu giñan egueñan. Deixa herriko elkarte danek egittia pozgarrixa izan zan. Euskeriak eta *Egunkaria*-k elgetarron babesa jasotzia be bai. Elgetan 250 lagun, Aretxabaletan 100, Arrasaten 600, Elorrixon 80, Durangon 300. Danian asko, Elgetan izugarri.

Gura giñuen euskarazko egunkari barrixak zer pentsau emon dau. Hamahiru urte dala *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko kontuan hartutako printzipiak ardatz izan bihar dirala uste dot: baterakoia, zabala, erdarazko hedabidietatik independentia, erakunde politikuetatik independentia, ez-instituzionala, erakunde publikoek diruz lagundutakua, profesionala eta militantia. Zabaltasun mesederako, ez nuke nahi oiñarri herritarra euki bihar daban proiektu barrixa, ur politikueta edo instituzionala bideratzeik. *Egunkaria* sentsibilizitate danei gehixen zabaldu dan egunkarixa izan da. Barriak bide hori jarraitu bihar leuke, ondio gehixau zabalduz. Kazetari danontzako idazteko eskubidia eskatuz. Ahal dala seguru. Euskeriak eskertuko leuke.

'EGUNKARIA'

'Egunkaria'-ren eta euskararen alde 250 lagun batu ziren Elgetan

O.E.

Egunkaria-ri elkartasuna adierazteko herriko elkarte guztiak egindako deia erantzunez, 250 lagun batu ziren aurreko eguen iluntzean Elgetan. Urteak ziren kale bilkura baten horrenbeste jende batzen ez zela. Kalejira zaratatsua ere egin zuten.

Erretiratuak, umeak, beharginak, etxeoandreak, andereñoak, elkarte eta alderdi guztietako ordezkariak... Elgeta osoak, azken baten, bat egin zuen aurreko egueñan *Egunkaria*-ren aldeko elkartasun egueñan. Nagusienek gogoratzen ez duten beste jendetza batu zen plazan, *Egunkaria* aurrera, bai euskarari zioen pankartaren atzean. GOIBEKOKALEren kontuak gaizki ez badaude, eta ez daude, 250 lagun batu zituen *Egunkaria*-ren aldeko Elgetako batzordeak egindako deiak. Hamar minutuz plazan egon ostean, *Egunkaria* eta euskararen aldeko kalejira zaratatsuari ekin zioten. Etxafuegoak, txistuak eta trikiti soinuak izan zituzten lagun bidean.

PLAZATIK ELIZARAKO ILARA LUZEA

Batutako jendetza ez zen nolana hokoa izan. Kalejiraren aurreko aldea plaza aurreko bidea zeharkatzera zihoanean, azke-



Egunkaria-ren aldeko materiala erosita ere lagundu dute zenbait herritarrek.

nak elizako lorategien parean zihoazen. Salbador kalean gora eta behera ibili ostean, plazan amaitu zen ekitaldia. Hala, *Egunkaria*-n lanean jardun duen Haritz Gallastegi kazetariak eskerrak eman zizkien ekitaldian parte hartu zutenei eta aurrerantzean antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera gonbidatu zituen.

HERRITAR EZAGUNAK 'EGUNKARIA'-REKIN Martitzenean batzarra egin zuten *Egunkaria*-ren aldeko Elgetako batzordekoek. Hasi dira hurrengo asteetan aurrera eramateko ekitaldiak gertatzen. Apirilean ekitaldi bat egingo dute. Bertan Elgetako kirolari, artista eta elkarteetako ordezkariak bat egingo dute *Egunkaria*-rekin.



GORKA ARIZMENDIARRIETA

Urtetan Elgetan egin den kale bilkura eta kalejira jendetsuenean 250 herritarrek hartu zuten parte.

LABUR

Estampakuak Kopako finala jokatuko dabe etzi

Aurreko astian Maixa tabernaren kontra irabazi ostian, bihar, 16:30ian, Kopako finala jokatuko dabe Estampaciones Intxorta taldekoak. Ligan moduan, Kopan be maila bikaina emoten dihardue Estampakuak eta hori irabaztia da euren nahixa. Finalian Katu Kale taldea izango da Estampakuen aurkarixa.

Eguarbitzan 25 arbola landatuko dittue domekan

Baserritarren batzordiak antolatuta, Zuhaitz Eguna izango da domekan. Astigarrik eta lizarrik landatuko dittue aurten Eguarbitzan. Domekan, 09:00etan urtengo dira Eguarbitza aldera. Daurkanak, behintzat, atxurra eruatia komeni da.

Alberto Telleriak 'Berbeta berua' liburua idatzi dau

Aurreko zapatuan, Arrasateko Amaia Udal Antzokixan aurkeztu zeban Alberto Telleriak *Berbeta berua* liburua. Badihardugu Euskera Alkartariak argitaratu dau liburua. Lagun artian eta kalia erabiltzeko herbak eta esaldixak batu ditte liburuan. Liburudendetan jarri dabe salgai hori liburuori.



GOIBEKOKALE

Alberto Telleriak idatzi du liburua.


DEPILAZIOA LASER BIDEZ

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzagena
Medikua: Gabriel Hernández

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artakale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Mikel Herzogen taldea

Mikel Herzogen taldeak 1982ko azaroan egin zuen aurkezpen kontzertua Udal Pilotalekuan. Taldeak rock abestiak jotzen zituen eta, besteak beste, Miguel Ríosen kutsua nabaria zen taldeko erreperitorioan. Taldeak urtebete inguru jardun zuen Euskal Herrian barrena kontzertuak eskaintzen. Kantu gehienak Mikel Herzogek berak, Alfredo González Chirlaquek eta Fran Iturbek konposatutakoak ziren. Frontoia lepo bete zen taldearen aurkezpen egunean.

Argazkia 1982ko urrian ateratakoa da, Antzuolako Iribar baserrian. Hango ganbaran entseatzen zuten. Argazkian, ezkerretik eskumara: Jose Mari (gitarrekin agertu arren bateria jotzailea zen), piano jotzaile donostiarra, Fran Iturbe (gitarra), Aitor Gallastegi (baxua), Mikel Herzog (ahotsa), Xabi Labaien (sintetizadorea) eta Jabi azkoitiarra (gitarra).

Argazkia: Pedro Egaña.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituz!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Matxiategiko aparkalekua

Matxiategiko aparkalekua egiten hasi zireneko argazkia duzue ezkerrekoa. Orain dela zortzi bat urtekoa da argazkia, eta kanposantutik aterata dago.

Esan bezala, 90eko hamarkadaren erdialdean aparkalekuen falta nabaria zen Matxiategin, eta Udalak barrakak kokatu izan diren orubea asfaltatzeko eta egokitzeko lanak egin zituen. Orduetik hona egoera dezente hobetu da.



≈ 1995

1995aren inguruan ateratako argazkia. Orduan hasi zituzten Matxiategiko orubea txukuntzeko lanak.



2003

Nagusiki Matxiategiko bizilagunek erabiltzen duten aparkalekuan auto dezente sartzeko aukera dago.




Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA

LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Udaberria-Uda
SUBIJAi
Ume eta gazte moda

943 76 42 41. Irizar 1

OILILY • KENZO • PAMPOLINA • QUIKSILVER • LIBERTO • PETER RABBIT TIMBERLAND • ELLE • CAKEWALK

IPARRORRATZA...

Goazen bidaiatzera!


Martitzenero,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Julen Aranguren

Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko
duzu!





Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

ADATS

- Herri lagunak 4
BERGARA
943 76 49 51
- Europako azken tendentziak
 - Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
 - Solarium bertikala



- Boni Laskurain 2
BERGARA
943 76 56 05
- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
 - Kerastase tratamend.
 - Makillaje bereziak
 - Abangoardia lanak

disdira

- Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55
- Luzatzeak
 - Azken joerak
 - Ezkontzak
 - Metxak eta moldeatuak

IDOLA

- Espoloia 4
BERGARA
943 76 97 75
- Ile luzatzeak
 - Aurpegiko larruazal garbitzea
 - Solariuma

ileak

- Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54
- Ilerako tratamenduak
 - Teknika berriak
 - Era guztietako orraskerak

IZARRA

- San Pedro 23
BERGARA
943 76 29 72
- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
 - Ilerako bitxiak
 - Solariuma dutexarekin

Jean Louis David

- Ibargarai 43
BERGARA
943 76 22 48
- Teknika aurreratuenak
 - Deskontu txartelak
 - Solariumerako bonoa
 - Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

KIZKUR

- Bolu 51
BERGARA
943 76 50 32
- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
 - Azken joerak
 - Puntako markak

ORRASKI

- San Pedro 6
BERGARA
943 76 47 01
- Ile apaindegi mistoa
 - Kolore bereziak
 - Ezkontzak
 - Solariuma

Ostadar

- Ibargarai 42
BERGARA
943 76 72 76
- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
 - Depilazioa eta makillajea
 - Solariuma dutexarekin

Pepelu

- Zurradero 2
BERGARA
943 76 43 07
- Gizonezkoendako
 - Labanaz moztea
 - Azken tendentziak
 - Bizartegia
 - Kolorea

SANCHEZ

- Fraiskozuri 4
BERGARA
943 76 23 70
- Gizonezkoendako
 - Labanaz moztea
 - Klasikoa/modernoak
 - Bizartegia
 - Kolorea